

Norbaitek darama *Bugaled Breizh* bigarrenez hondora

Roazhoneko (Rennes) epaitegiak ebatzi du: ezin da jakin zerk eraman zuen hondora *Bugaled Breizh* arrantzontzi britainiarra bere bost eskifaiekin 2004ko urtarrilaren 15ean. Senideek eta istripua aztertu duten askok uste dute urpeko nuklear ingeles batek hondoratu zuela, inguruan NATOren aginduetan maniobretan ari zirela.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HAMAIKA URTE LUZE PASATU DIREN arren, bada norbait misterioaren egia azaleratzerik nahi ez duena: zerk hondoratu zuen *Bugaled Breizh* arrantzontzi bretoaia Britainia eta Kornualles arteko itsasoan?

Maiatzaren 14an Roazhoneko epaileek errudunik zehaztu gabe itxi dutenean betirako dossiera, haserre mintzatu dira baporearekin batera galdutako bost eskifaiekin senideak. “Epaileek bigarren aldiz hondoratu dituzte ontzia eta marinelak”, esan du Christian Bergot abokatuak. “Barre egin diete arrantzaleei eta itsasoko jende guztiari”, oldartu da Thierry Le Métayer, *Bugaled Breizh*eko mekanikoaren semea. Europara jo beharko dute egia bila, Frantziak ezkututzen die-lakoan.

Bugaled Breizh (Britainiaren Umeak bretoieraz) Loktudi herriko arrasteontzi bat zen. 2014ko urtarrilaren 15ean bost gizon zeramatzan karelean: Yves Gloaguen, Georges Lemétayer, Pascal Le Floch, Patrick Gloaguen eta Eric Guillamet. 37 segundotan irentsi zuen itsasoak, baporeari azpitik izugarritzko indarren batek tiraturik. Zerk, ordea?

Aurreko egunak Kornuallesko Newlyn herriko portuan egonak ziren aterpeturik, ekaitzari ihesi. Baretu zuenean itsasoratu ziren

berriro. Dena lasai zirudienean, eguerdi beteko 12:30ean hondoratu zen, minutu erdi eskasean.

Eridan baporeak zabaldu zuen larrialdi deia. Ordu bete beranduago, Britainia Handiko Royal Navyko helikoptero batek bildu zituen bi gorputz. Larrialdietarako bizpahiru txalupa ere ikusi ziren uretan baina hutsik. Bost hilabete beranduago atera zuten itsasotik *Bugaled Breizh*. Geroztik Bresteko base militarreko bazter batean dago utzita.

“Egun haietatik gaurdaino –diote *Bugaled Breizh*eko eskifaiekin memoria zaintzen duten elkartekoei– baporearen hondoratzea esplikatzeke denetik aipatu da, gauza bat bezala alderantzizkoa, baina sekula ez da azaldu egia. Urteotan justiziak ez du lortu edo ez du nahi izan erantzukizunak aurkitu eta errudunak argi eta garbi izendatzea”.

Baporeak arrastearen zeraman sareak itsasoaren hondoa kateatzeagatik gertatu izana laster baztertu zen: azkarregi urperatu zen ontzia. Zamaontzi erraldoi batekin tupust egin izana ere aipatu zen, baita susmagarria izendatu ere, *Seattle-Trader* pakebota filipinarra. Gezurra, laster ikusi zen ikerlariak tronpatzeko trikimailua zela.

Hasieratik aipatua izan zen urpeko nuklearraren hipotesia. *Bugaled Breizh*en sarean kableek titanio

Bretainiako Penn-ar-Bed (Finistère) departamenduko Loktudi herrian zeukan kaia *Bugaled Breizh* baporeak. 2004ko urtarrilaren 15ean hondoratu zen Kornuallesko Cap Lizard inguruko uretan. *BFMTV* gunetik eskuratutako irudian ageri denez, uzailean atera zuten urpetik eta atoian eraman Bresteko kai militarerraino. Kroskoan ikusten zaizkion mailatu handiek erakusten dute zer nolako indarrez izan zen herrestan eramana eta kolpatua, senideek uste dutenez *HMS Turbulent* urpeko atomikoak harrapatuta. Honen komandante Andrew Cole aurrez aurre aurkitu zuen *The Silent Killer* filmaren egileak: “Esan nion hiru lekuko ekartzen bazituen zin egingo zutenak istripuaren egunean bera lehorrean zegoela, orduan publikoki barkamena eskatuko niola bere izena eman izanagatik. Isilik alde egin zuen halako irribarre batekin, esanez bezala ‘dena ulertu duzu baina sekula ez duzu demostratuko’”.

arrastoak zeuzkaten, submarino atomikoek azalean daramaten materialarena. Istripua gertatu zen egunetan NATOko itsasontzi, urpeko eta hegazkinak maniobretan ari ziren inguru haietan. 2007an An Orianteko (Lorient) hiru epailek ebatzi zuten urpekoak arrantzaleen sarea harrapatu izana zela istripuaren azalpenik sinesgarriena.

Baina geroztik, Parisko agintariak hiru epaileei eskuetatik kendu zieten dossiera. Senideek salatu zuten fiskalak ez zuela ikertu nahi hipotesi nagusia. Aldizkari *horiak* hasi ziren pista faltsuak zabaltzen, hipotesirik sinesgarriena estaltzeko.

“Secret Défense”

Eskandalua salatu eta ikerketa bizi-rik atxikitzen ahalegindu dira marinen hurbilekoak “*The silent killer*” (Hiltzaile isila) dokumentalarekin. Bost eskifaieko baten semeak Jacques Losey zinegilea berotu zuen horretarako.

Ziento erdi bat lekutan eskaini dute filma, milaka ikusleren aurrean. “Emanaldi orotan –dio Loseyk– ikusleak harrিতта geratzen dira hainbeste pista gezurrezko nola jarraitu diren ohartuta. Atsekabertzen dira. Benetako galdera sakonak sortzen zaizkie, gure demokraziaren funtzionatzeko eraz, sistema judizialari buruz...”.



komandantea. Norbaitek ezaguturik, harengana hurbildu zen Michel Douce, bapore galduaren armadorea, bost langileen ugazaba, aferaren egia jakiteko mobilizatua. Hilabete batzuk lehenago bere abokatuak eskatua zien Frantziako epaileei Cole komandantea galdekatzeari, Britainia Handiko armadaren iturrietatik eskuratua zuelako informazioa istripuaren egunean *HMS Turbulent Cap* Lizard inguruetan zebilela frogatzen zuena.

Andrew Colek Douceri esaten dio, kameraren aurrean, sentitzen duela bapore hura hondoratu izana baina berak ez zuela zerikusirik izan. Zer dela sentitu zuen publikoan bere burua azaltzeko beharra Cole komandanteak, bere gaineko militarrek esplikazio guztiak eman eta atea itxiak dituztenean? Bere burua zuritzeko, bakarrik sentitzen dela adierazteko...

Inkogniten artean egia sinesgarri baten bila segituko dute *SOS Bugaled Breizh* bekoek. Gaur ez bada bihar marinel edo sorosleren batek dakien datu definitiboa kontatuko duela ziur daude. Ziur dauden bezala NATOko militarrek egia ezkutatzen dietela. Behin eta berriro aurkitu dituzte lekukoak militarrek emandako informazioak gezurtatu dituztenak.

Istoriok, ordea, badu euskaldunontzat ere ezustekoa. 2007an Kenperreko auzitegian dossierra istea eskatu zuen prokuradorea Anne Kayanakis zen. 2010ean Jon Anza desagertu zenean Baionatik Okzitaniako Tolosarako bidean, Kayanakis zen prokuradorea Baionan. Jon Anzaren senideei galdetu. ■

Politikariekin ere ahaleginu dira. Bai Britainiakoeekin eta bai Pariskoekin. Senatuan erakutsi zuten filma 2013an. 2007a arte Defentsako ministro egon zen Michelle Alliot-Marie donibandarrarekin ez zuten ezer lortu. Haren ordeiz Jean-Yves Le Drian bretoaia jarri zutenean espero zuten hau bere herrikideez errukitzea. "Ia okerrago izan zen honekin. (...) Argudio bera dute: beharrezko agiri guztiak hor daukazue. Beraz, hemen ez dago zer ikusirik, zoazte etxera..."

SOS Bugaled Breizh elkartekoek filma erakusten duten leku orotan bilera honela bukatzen dute: "Zuetako norbaitek baldin badaki edo entzun badu zerbait hondoratze honen inguruan, mesedez esan die-

zagula! Izan zibil edo militar, entzun diezaiola bere kontzientziari eta kontatu diezagula zer gertatu den. Jakiteko eskubidea daukagu".

Horietako bilkura batean gertatu zen zerbait harrigarria. Istripua arreta handiz jarraitu baitzuten Kornuallesko Newlyn herrian, "*The silent killer*" filma bertan erakustera konbidatu zituzten bretoiak. 2013ko martxoan Newlynen gertatutako eszena *Youtuben* dago ikusgai: sareetan kateaturik *Bugaled Breizh* hondora eraman zuela uste den *HMS Turbulent* urpeko atomikoaren komandantea bilkuran zegoen, *incognito*.

Arrantzalez eta sorospen ekipotako jendez betetako salan, atzeko aldean zegoen Andrew Cole



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira